



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO ERKIDEGOKO ESTATUTU POLITIKO BERRIAREN PROPOSAMENAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskadiko Erkidegoko Estatutu Politiko Berriaren Proposamena mamitu eta zabaltzen gauzatutako gastuen fiskalizazio lana egin du. Txostena HKEEren Osokoaren kideen adostasunez onetsi dute.

Lanaren mamia Eusko Legebiltzarrak onetsitako proposamen hori gauzatu eta zabaltzean egindako gastuen zenbatekoa kalkulatzeko ez ezik, horiek diru-publikoak kudeatzeko gaitan indarreko legedira egokitzen direla egiaztatzea izan da. Aztergai izan dugun aldiak 2001eko uztailaren 11tik –Lehendakariak inbestidura-hitzaldia egin zueneko data-, proposamena Diputatuen Kongresuaren aurrean aurkeztu zenera arte besarkatu du, 2005eko otsailaren 1a arte.

Aurrez adierazitako bi daten artean gertatutako une gogoangarrien deskribapena egiten da, eta berariaz gailentzen dira 2005eko urriaren 25eko Eusko Legebiltzarraren Osoko bilkura, zeinetan Gernikako Estatutua osorik betetzeko eskatzen den; 2002ko uztailaren 12a, ordenamendu juridikoaren proiektu berria artikulatzeko proposamenak gauzatu eta garatzen hasteko erabakiarekin; 2003ko urriaren 25a, Legebiltzarreko Lehendakariari Gobernu Kontseiluak onetsitako testu artikulatua ematen zaioneko; eta abenduaren 30a, Legebiltzarrean gehiengo osoz Estatutu Berriaren Proposamena onesten deneko data.

Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak Estatutu Berriaren Proposamena mamitu eta zabaltzen egindako gastuak lau urte eta erdi hauetan, 1,05 milioi eurokoak izan dira.

Ezargarria den legezko arautegia betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, “baitetsi egin da Estatutu Politiko Berriaren Proposamenari egotz dakizkikeen gastu guztiak ezargarria zaien araudira egokitzen direla”, hainbat akats azaleratu direlarik, hala nola, Argitalpenen Zerbitzu Nagusian prozedura negoziatu bitartez egindako espedienteetan kontratazio mahaia ez eratu izana; publizitate enpresekin 65.170 euroko kontratu zuzenak egitea; pertsona fisiko bati 11.890 euroko ordainketa PFEZ atxiki gabe egitea eta 32.705 euroko publizitatea sartzeko kontratu baten aldaketa ez gauzatu izana.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Azkenik, aztergai izan diren espediente guztiak biltzen dituen eranskina barne hartu da, urteen arabera sailkatuak, egindako gastuaren zenbatekoa eta erabilitako kontratazio prozedura adieraziaz.